



TALDE ERAGILEAREN **2017ko 1. Bilera, 2017-05-03**

BILERAREN MEMORIA DESKRIPTIBOA

BERTARATUTAKOAK:

- Udal ordezkariak: Agurtzane Aiestaran eta Eztitxu Mujika
- Herritarrek: 6 lagun bertaratu dira, 4 emakumezkoak eta 2 gizonezkoak.
- Dinamizazio lanak: Aztiker Soziologia Ikerguneko teknikaria, Susana Martinez

1.- AURKEZPENAK ETA KOKAPENAK:

2016ko urritik hona egindako ibilbidea erreparatu eta kokatu da, bai ekintzen baitan, eta baita ere ekintza horiek eman duten edukiaren baitan ere. Besterik gabe, entzun egin da kokapena.

2.- 2017 URTERAKO HERRITARREKIN GARATZEKO PROPOSATZEN DEN LAN ESKEMA

Eskemaren aurkezpena egin da, bai proposatzen diren xede taldeen baitan, eta baita proposatzen den egutegiaren baitan ere. Eranskinean azaltzen da aurkeztu den dokumentu eskema: *Eranskina 1.*

3.- LEHIAKETA PUBLIKORAKO OINARRIAK

Oinarrien aurkezpena egin da ppt bidez.

Aurkezpenaren ondoren, partaideek haien balorazioak eta ekarpenak egiteko txanda ireki da, eta jarrian azaltzen direnak dira jasotako iritzi eta ekarpenak:

- Epai mahaiaren osaketari dagokionez, proposatzen da genero ikuspegia txertatzea, eta osaketa hori izan dadila %50+%50era gehien gerturatzen zaion osaketa. Partaideen kopurua bakoitia denez, gutxienez eskatzen da %40 emakumezkoa izatea, eta zehaztu ahal bada izan dadila %50a emakumez osaturik.
- Hizkuntzari dagokionez, proposatzen da oinarrietan zehaztea lehenetsiko direla edota puntuatuko direla euskaraz aurkezten diren proposamenak. Alegia, euskaraz egitea baloratzea.
- Bi ekarpen horiek jaso eta udal idazkariarekin eta arkitektoarekin kontrastatuko direla legezko formulazioa zein izan daitekeen argitzeko.
- Eskatzen da ere ATERPEaren erabilerari definitu zitzaiona txertatzea oinarri espezifikoetan, hots, udazkenean egindako ariketan atera zena (ohiko eguneroko jardueretarako, herriko festetarako, e.a.). Arazorik gabe osatuko da horrela oinarri espezifikoaren atala.
- Esaten da Udal eraikinak balkoia beharko duela, eta agian hori ere oinarri espezifikoetan zehaztu behar dela, alegia, eraikinak balkoia izan behar duela, eta horren funtzioa (txupina botatzea, ikurriña jartzea...).



Zaldibiako Udala *Nolako Zaldibia nahi duzu? Zaldibiko Gune eta Eraikin ezberdinen eraberritzea lantzen, 2017.*

- GALDERA egiten da honela: ba al da dirurik benetan obra aurrera eramateko? Erreal al da eraikin berria egin daitekeela?

Udal ordezkariak honela erantzun dute:

Udalak 2016ko kontuetatik geratu zen diru poltsatik bermatzen du proiektu urbanistikoa ordaintzea. Hortik aurrera, obra finantzatzeko bi bide daude eta lantzea aurreikusten da:

- 1- Beste instituzioetatik diru laguntzak.
- 2- Beste instituzioetatik lortzen ez den diru kopurua mailegu bidez estaltzea.

Baina edozein kasuetan, obraren finantzazio bila joan ahal izateko ezinbestekoa da proiektu urbanistikoa izatea. Hori dela eta, lehen urratsa Udalak ziurtatzen du (2017an zehar egiten hasi den proiektu urbanistikoa).

Besterik gabe, ekarpenak teknikariek errepasatuko direla esanda, gaia amaitutzat eman da.

4.- TALDE ERAGILEAK HIRU PERTSONA IZENDATZEA

Aipatu da, 2017an garatzeko plangintzak proposatu bezala, Talde Eragileak izendatu beharko dituela 3 pertsona Talde Eragilean herritarrak ordezkatzeko. Izendapen hau egiteko bilera deituko da, ekainean zehar, eta bertan, irizpide zehatzen baitan (adina, generoa, e.a.), izendatuko dira ordezkariak, batez ere irailean zehar lehiaketaren baitan lana egiteko.

5.-BESTERIK

Bilera amaitu aurretik konpartitu da kezka asistentzia exkaxa izan dela eta. Baloratu da ere agian hainbat pertsonekin zuzenean hitz egin daitekeela. Horrez gain, esan da deialdiak bidaltzearekin batera beharrezkoa izango dela telefonozko dei ronda bat egitea partaideei haien asistentzia baieztatzeko eskatuz. Koordinazio bileran landuko da gaia eta zehaztuko da ere aurrera begira Talde Eragilerako deialdiak eta komunikazioa egiteko protokoloa.

Eta bilera amaitutzat eman da iluntzeko 20'10etan.

Zaldibian, 2017ko maiatzaren 3an.



I.ERANSKINA:

ZALDIBIA ERABERRITZEN 2017

2017an zehar herritarrekin garatzeko **PARTAIDETZA ESKEMA: IDEIA LEHIAKETA**

	APIRILA-MAIATZA	EKAINA-UZTAILA	IRAILA			URRIA-AZAROA-ABENDUA	ABENDUA-URTARRILA
	LEHIAKETA PUBLIKOA EGITEKO OINARRIAK ONARTZEA	LEHIAKETA PUBLIKO DEIALDIA (irailak 1 arte)	2. ASTEA: EPAIMAHAIA ERATZEA ETA LEHEN BILERAK	3. ASTEA: HERRITARREN TXANDA	4. ASTEA: EBAZPENA EMAN ETA ESLEITURIKO PROIEKTUA JAKINARAZTEA	PROIEKTU IRABAZLEA: Zehaztasunen kontrasteak eta proiektuaren erredakzioa	BALORAZIOA
ALDEBIKOAK ETA TEKNIKARIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Lehiaketarako Oinarrien zirriborroa prestatzea, 2016ko hausnarketak bertan txertatuko direla ziurtatuz. - 2017an zehar herritarrekin garatzeko partaidetza eskema definitu eta adostu. 	Lehiaketaren jarraipena, epai mahaia osatzea	Epaimahaia osatu eta ebazpen prozesua hasi		Epaimahaia ebazpena eman	Udal langile, ordezkari, zuzeneko interesatu (Beti Gazte, jangela) eta Talde Eragilearekin kontrasteak arkitekto garailea lagun.	<ul style="list-style-type: none"> - 2017ko balorazioa - 2018rako plan zirriborroa
TALDE ERAGILEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Lehiaketa publikorako Oinarriak jaso eta errepasatu; zalantzak argitu, ekarpenak iradoki. 2017an zehar herritarrekin garatzeko partaidetza eskema proposamena aztertu, osatu eta onartu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lehiaketaren jarraipena - Epai mahaia osatzeko ordezkariak izendatzea 	Epaimahaia osatu eta ebazpen prozesua hasi		Epaimahaia ebazpena eman	Kontrasteak arkitekto garailea lagun.	<ul style="list-style-type: none"> - 2017ko balorazioa - 2018rako plan zirriborroa
HERRITARRAK OROKORREAN	<p>JARDUNALDIAK/ATE IREKIAK: Eraikin publikoen gaineko ekintza plana ezagutzeko eta baloratzeko ATE IREKIAK: Maiatzaren 25-26-27 (datak zehazteko?):</p> <p>1- gunea: Eskola gunea: Maiatzaren 25ean, 15etatik 17etara ESKOLA GUNEAN</p> <p>2. gunea: Kultur-etxe zahar eta Artxanberri gunea: Maiatzaren 25ean, 17'30etatik 19'30etara MUSIKA ESKOLA-ARTXANBERRIN</p> <p>3. gunea: PLAZA, UDAL ERAIKINA, Maiatzaren 26ean arratsaldeko 16etatik 20etara, plazan.</p>			<p>JARDUNALDIA/ATE IREKIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurkeztutako proiektu ezberdinen erakusketa - Proiektuak baloratzeko eta LEHENESTEA (Bozkatzea) 	Esleituriko proiektua jakinaraztea: aurkezpen publikoa		

URTE OSOAN ZECHAR:

- Finantzazioa lan ildo: [ALDEBIKOAK ETA TEKNIKARIAK](#)
- Instituzio ezberdinen diru-laguntzak
- Banketxeak
- Forma juridikoa eta administratiboa emango diete proposamenei (Udalbatzaren bidez, e.a.; urrats bakoitzari dagokion lan eskema politiko eta administratiboaren arabera). [ALDEBIKOAK ETA TEKNIKARIAK](#)



ZALDIBIA ERABERRITZEN 2017

2017an zehar herritarrekin garatzeko **PARTAIDETZA ESHEMA: KULTUR ETXE ZAHARREKO ZERBITZUAK ARTXANBERRIRA ERAMATEA**

	APIRILA-MAIATZA	EKAINA-UZTAILA	IRAILA		URRIA-AZAROA-ABENDUA	ABENDUA-URTARRILA	
	KUDEAKETA EREDUA ETA PROIEKTUA LANTZEA	KUDEAKETA EREDUA ETA PROIEKTUA IDAZTEA (Ekarpinak txertatuz)	OBRARAKO ESLEIPEN DEIALDIA IREKITZEA	ESKAINTZAK AZTERTU	OBRA ESLEITZEA	OBRA GAUZATZEA	BALORAZIOA
ALDEBIKOAK ETA TEKNIKARIAK	Aldebikoak udal-teknikariekin (arkitekto, kultur teknikari, idazkari) proiektu eta kudeaketa proposamenak osatu	Uztaila: proiektuaren eta kudeaketaren behin-betiko idazketa	Osoko Bilkuran deialdia irekia egin	Aldebikoan teknikarien laguntzaz aztertu eta ebatzi	Osoko Bilkuran esleipena egin	Teknikarien bidez obra jarraipena egin	- 2017ko balorazioa - 2018rako plan zirriborria
TALDE ERAGILEA		Ekaina: proposamena eta herritarren ekarpinak uztartuz, landu eta onartu		Jasotako eskaintzen eta ebazpenaren berri eman			- 2017ko balorazioa - 2018rako plan zirriborria
HERRITARRAK OROKORREAN	JARDUNALDIAK/ATE IREKIAK: Eraikin publikoen gaineko ekintza plana ezagutzeko eta baloratzeko ATE IREKIAK: Maiatzaren 25-26-27 (datak zehazteko?): 1- gunea: Eskola gunea: Maiatzaren 25ean, 15etatik 17etara ESKOLA GUNEAN 2. gunea: Kultur-etxe zahar eta Artxanberri gunea: Maiatzaren 25ean, 17'30etatik 19'30etara MUSIKA ESKOLA-ARTXANBERRIN 3. gunea: PLAZA, UDAL ERAIKINA, Maiatzaren 26ean arratsaldeko 16etatik 20etara, plazan.					Amaieran, inaugurazioa eta auzolan saioren bat (behar balitz, adibidez, trasladoan)	

URTE OSOAN ZEHAR:

- Finantzazioa lan ildoak: **ALDEBIKOAK ETA TEKNIKARIAK**
- Instituzio ezberdinen diru-laguntzak
- Banketxeak
- Forma juridikoa eta administratiboa emango diete proposamenei (Udalbatzaren bidez, e.a.; urrats bakoitzari dagokion lan eskema politiko eta administratiboaren arabera). **ALDEBIKOAK ETA TEKNIKARIAK**



Zaldibiako Udala

Nolako Zaldibia nahi duzu? Zaldibiko Gune eta Eraikin ezberdinen eraberritzea lantzen, 2017.